

Errepublikanismoa eta euskara

II. Errepublika aurretik

Unai Belaustegi

Historia Garaikidean doktorea. UPV/EHU

Jarraian aurkezten den artikuluan errepublikanismoa plaza publikoan agertu zenetik (1868) II. Errepublika aldarrikatu arte (1931) Hego Euskal Herriko errepublikanoek euskararekiko erakutsi zuten jarrera aztertu da. Kultura errepublikanoaren baitan bai gaztelaniak eta bai euskarak euren lekua izan zuten, baina bakoitzak bere esparru propioa bete zuen. Ideologia politiko laiko eta moderno honen defendatzaileek batez ere federalismoari esker lortu zuten errepublikanismoa eta euskara kontraesanik gabe eguneroko bizitzan uztartzea.

GAKO-HITZAK: Errepublikanismoa · Euskara · Federalismoa · Foruak.

Republicanism and Basque language before 2nd Spanish Republic

In this essay we will analyze the relationship between Basque republicanism and Basque Language, from 1868, when republicanism appeared into the public sphere, to II Spanish Republic, 1931. Basque republicans used both Basque and Spanish Languages but they defined clearly which each ones area was. Because of the federalism, they achieved to join and use the laic and modern political ideology and the old Basque Language.

KEY WORDS: Republicanism · Basque language · Federalism · Ancient Laws.

Jasotze-data: 2014-02-25. Onartze-data: 2014-04-19.

Errepublikanismoa Euskal Herrian, estatu-mailan gertatu zen bezala, 1868ko iraileko Iraultzaren ostean plazaratu zen lehendabiziko aldiz. Orain arte dakigunaren arabera, bi korronte ezberdinen inguruan bildu ziren hasierako errepublikano haiek: alde batetik, federalismoaren banderaren azpian, eta, bestetik, monarkiko liberalekin koalizioan. Federalismoaren azpian agertu ziren lehendabizikoak, Bilbo-ko eta Tolosako alderdiak izan ziren, 1868ko urtea amaitu aurretik jada antolatuta zeudenak.

Bai korronte batekoek eta bai bestekoek, antzekotasun ideologiko handiak izan zituzten: guztiek ordura arteko estatu isabelinoaren aurrean estatu-egitura errepublikano eta federal baten aldeko jarrera erakutsi zuten, nahiz eta hori lortzeko estrategietan ezberdintasun nabarmenak eduki. Egitura federalarekiko hurbiltasuna euren foruzaletasunak eman zien, foru-gobernuak mantentzeko aukera teoriko ia bakarra errepublikanismo mota horretan aurkitu baitzuten. Foruzaletasunarekin lotuta, errepublikanoen euskaltzaletasuna edo euskal kultura eta ohiturekiko interesa azpimarratu behar da¹. Horrez gain, karlismoarekiko eta ondoren euskal nazionalismoarekiko aurkakotasun handia adierazi zuten, besteak beste, errepublikanoen diskurtsoan demokrazia, laikotasuna eta modernitatea oso barneratutako ideiak izan zirelako.

Baina hala ere, hasierako errepublikanoen euskaltzaletasunaren barnean, euskararekin izan zuten erlazioari buruz, oraingoz behintzat, informazio gutxi aurkitu da². 1868tik Foruen Abolizioaren Legea (1876) kaleratu arteko urteak adibide esanguratsuak dira aspektu horri dagokionez. Errepublikanismoa —liberalismoa oro har— eta euskara uztartzen dituzten iturriak ez dira egundaino iritsi, eta iritsi diren errepublikanoei buruzko iturri apurretan euskararen aipamenik ez da ia agertu ere egiten. Euskararen erabilera publiko-politikoa batez ere korronte tradizionalistetan eman zen fenomeno bat izan zela esan daiteke, Patxi Altunak Jose Inazio Aranari buruzko lanean kontatzen duen moduan (Altuna, 1996: 33). Altunak Arana jesuitaren hitz batzuk ekartzen ditu gogora, euskara etsaiari edo «liberal»ei zuzentzeko erabili ohi zutela adierazteko:

El mes pasado y éste han salido varios papeles, y alguno que otro librito en «vascuence» muy oportunos, y en «euskara o baskuenze» contra protestantes y liberales con motivo de esparcimientos, malos papeles y libros.

Liberalak ere euskaraz ulertzen zutela ondorioztatzeko besterik ez du balio esaldiak, politikagintzan, esan bezala, ez baita euskararen aztarnarik mantendu. Baieztapen horri eusten dion beste adibide bat da 1868tik 1876ra arte errepublikano eta liberalek idatzi zituzten egunkarietan euskarazko aipurik aurkitu ez izana. Errepublikanoak prentsa-organo sortzaile apartak izan ziren, baina euskara ez zuten egunkariak betetzeko tresnatzat ia sekula erabili. Kasurik bitxiena agian, gipuzkoarrek sortutako *El Euskara* (1868-1872) aldizkaria da. Besteak beste

1. 1868ko Iraultzak, esaterako, Gasteizen Ricardo Becerro de Bengoa *El mentirón* astekariaren zuzendaritzan harrapatu zuen, eta ondorioz, Iraultza ostean arabar errepublikano federalen organo bihurtu zen. Becerro de Bengoarentzat, foruzale, «vascongado» eta errepublikano izatea gauza bera izan ziren (Ortiz de Orruño, 1991).

2. Errepublikanismoari buruzko ikerketak ugaritzen ari diren heinean konturatzen ari gara, aztarna gutxi utzi zituela artxibo eta administrazio publikoetan, eta errepublikanismoa aztertzeko iturri nagusia prentsa dela.

Joaquin Jamar errepublikanoak parte hartu zuen bertan eta errepublikanismoaren eta euskararen arteko harremanaren inguruan espekulazioak egitera bultza badezake ere, eta izenburuak aditzera ematen duenaren aurka, gaztelania hutsean idatzia egon zen³.

1. Berrezarkuntzaren hasierako urteak

Canovasek foruen abolizioa sinatu ostean, euskal errepublikano ugariak parte hartu zuten gobernu zentralarekin diputazioetako ordezkariak izan zituzten negoziaketetan, beste behin ere autonomiaren aldeko jarrera babestuz. Jakina denez, negoziaketa haietan euskararen auzia ez zen inolaz ere aipatu, euskaldunentzat oraindik hizkuntzaren auziak ez baitzuen probintzien autogobernuarekin inolako erlaziorik.

1870eko hamarkadaren amaieran eta 1880koaren hasieran, «demokrata» eufemismoaren atzean, egunkari eta astekari errepublikano berriak plazaratzen hasi ziren hegoaldeko Euskal Herrian, guztiak gaztelaniaz idatziak. 1885ean Donostian, Euskal Herrian sekula orrialde gehien kaleratu dituen egunkari errepublikanoa plaza publikoan aurkeztu zen: *La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano* (1885-1936). Korrante errepublikano ezberdinetako 16 errepublikano sortu zuten *La Voz*, eta hasierako urte zailen ostean, tartean 1888an sektore katolikoak egunkariaren aurka bildu zituen «50.000» sinadurak, Gipuzkoan gehien irakurri zen egunkaria izatera iritsi zen. Errepublikanoez gain, liberal monarkiko askok ere irakurri zuten (Belaustegi, 2014). Egunkaria sortu eta II. Errepublika aldarrikatu arte, gipuzkoar errepublikanismoaren ideologo nagusia eta errepublikanismoa egituratzeko ezinbesteko elementua izan zen *La Voz*, baina 46 urte horietan zehar ez zen euskaraz prosan idatzitako albiste edo kronikarik agertu⁴. Euskaraz kaleratutako idatzi bakarrak, bertso eta olerkiak izan ziren. Eta aipatu denez, *La Voz*-i egotz dakiokeen euskara falta hori bera egotz dakieke gainontzeko egunkari errepublikanoei ere. Egia da, bestalde, urte horietan euskal errepublikanoen artean euskara oso presente egon zela, besteak beste ia ospakizun guztietan abestu ohi zuten Gernikako Arbola ereserkiari esker. Iparragirre goraiatzea ere ohikoa izan zen, batez ere federalen artean.

Euskararen presentzia ezaz gain, 1890eko hamarkadara arte errepublikanoek ez zuten euskararen inguruko gogoeta askorik egin. Urte horietan zehar eta korrante liberalekin nolabaiteko hurbiltasuna mantenduz agertu diren adierazpen guztiak Donostian bertan *Euskal-Erria* aldizkariarekin erlazioatutako idatziak izan ziren, horietako batzuk egunkari errepublikanoek eurek egin zituztelarik. Hemen aipatu adibidez, Donostiako *La Voz*-ek *Euskal-Erria*-rekin harreman estua izan zuela eta XIX. mendearen amaiera arte behinik behin, euskal errepublikanis-

3. *El Euskara* aldizkariak gain, Iraultza osteko beste prentsa-organo hauek ere gaztelania hutsean idatziak egon ziren: Gipuzkoan, *Aurrera*, *La Justicia*, *El Libre Vasco-Navarro*; Araban, *El Federal Alavés*, *El Cantón Vasco*, *El Porvenir Alavés*; Bilbon, *La Federación*, *Irurac Bat* edota *La Verdad de los Fueros*, eta Nafarroan, *La Libertad* eta *El Voluntario*.

4. Salbuespen bakarra 1906ko azaroko Foru Ligako deialdia izan zen, aurrerago ikusiko dena. Salbuespen hori kontuan hartu gabe, euskaraz baino frantsesez lerro gehiago kaleratu zituen *La Voz*-ek II. Errepublika arte, nahiz eta frantsesez idatzitako paragrafo bakarra Mundu Gerra amaitu zeneko ospakizunetarako deialdia izan. Jarraian, gaztelaniazko itzulpena zetorren.

moaren beste ideologo nagusietako bat izan zen Benito Jamar hil eta gutxira arte, egunkari donostiarrak aldizkariaren jarraipen handia egin zuela, hango idazle eta gainontzekoen idatziak kaleratuz.

2. XIX. mendearen bukaera

1890eko hamarkadaren hasieran alderdi ezberdinetan antolatzen hasteak eta Kontzertu Ekonomikoaren negoziaketaren hurbiltasunak eraginda (1893-1894), egunkari errepublikanoak euskarari eta euskal kulturari buruzko gogoetak kale-ratzen hasi ziren aurrenekoz. Mikel Aizpuruk adibidez, Azpeitiko Udalean euskara-politikari buruz hitz egitean, XIX. mendearen bukaeran aldaketa antzeman zela dio, eta jartzen duen lehendabiziko adibidea 1903koa da (Aizpuru, 2011). Gehienetan, egunerokotasunean helburu politikoak lortzeko erabilgarria izan zitekeen instrumentu gisa bainoago euskal herrien historia goraiatzeko tresna gisa erabili zuten euskara, gai sinboliko bat baillitza. 1892an esaterako, Donostiako zorrillisten⁵ burua zen De la Peñak *La Libertad* egunkariaren orrialdeetan kontatzen zuenez, Donostiara etorri aurretik Madrilen Justo Maria Zavala Gorteetako tolosar ordezkari errepublikano eta medikuarekin elkartu eta hari esker euskal kultura lehendabiziko aldiz hurbiletik ezagutzeko parada izan zuen. Zavalak, Tolosako Furundarena piano-jotzaile gaztea, Laspiur tenorea eta Urandurraga piano-jotzaile afizionatua aurkeztu zizkion, eta denak batera bazkaltzeko elkartu ohi ziren. Halako bazkari batean, Zavalak berak euskaraz abestutako bertso hauek gogoratu zituen De la Peñak⁶:

Gure lege berria
biardegu jarri,
esango det egia
garbi eta sarri.
Churino eta beltzac
gerra egin zuten,
apaizac eta aberatzac
erregia nai zuten,
guchiegi gorriac,
gañera pobreac,
gurea arrazoia
indarra besteac.
(*coro*)
Viva Euskal-erria,
Viva lege berria,
Viva gure gendia,
Viva beti pakia.

5. Zorrillistak Manuel Ruiz Zorrilla espainiar errepublikano erradikalaren jarraitzaileak izan ziren, Berrezarkuntza garaian Errepublika iraultza bidez lortu behar zela defendatu zutenak. Zorrillari buruz informazio gehiago adibidez, Fernando Martinez Lopez (2007).

6. *La Libertad*, 1892-3-3, 1. Jatorrizko grafia errespetatu da. II. Gerra Karlistako beste bertso hauek bestalde, aurkako zentzuan joan ziren, liberalismoaren kontra: «Agintari liberal/ gaurkoak nai ditu/ amarrenak kendu ta/ apaizak gutxitu./ Ez dagozkion gauzak/ zertako mugitu?/ Ori ez luke egingo asmo onak balitu.// (...) Orobak liberalak/ apaizak kendurik./ Jainkoaren itzari ez eman lekurik;/ modu ortan jendia/ ona ez aditurik./ onda dediñ liberal/ dotriñan sartuik» (Zavala, 1997). Guztira 14 bertso dira.

Euskal herrien iragana gogoratzeko orduan, errepublikanoek Berrezarkuntza osoan zehar gehien erreparatu zuten pasarteak II. Gerra Karlistarena izan zen. Errepublikanoek gerren ardura beti karlistei bota zieten, anaien artean borroka piztu izana eta ondorioz foruak galdu izana leporatu baitzieten. Aipatu Zavalaren bi bertsoak, hain zuzen ere II. Gerra Karlistei egindako erreferentzia garbiak dira, gerron errudunak elizgizonak eta «aberatsac» izan zirelarik; «gorriec» —errepublikanoek edo demokratek— haiei aurre egiteko gaitasunik gabe ere (tartean ekonomikoak) arrazoiaren defentsan borroka egin zuten. Gainontzeko egunkari errepublikanoetan ere ohikoak izan ziren halako bertsoak. Bertso eta olerkiok, euskaraz idatziak egoteaz gain, Euskal Herria eta euskal tradizio eta kultura azpimarratu ohi zituzten. Eta, noski, foruak sarri agertzen ziren abestiotan.

Olerki eta bertsoekin batera, poliki-poliki bertsolariak eurak gogoeta haien protagonista bihurtzen hasi ziren, «hemengo» berezitasuna zela azpimarratuz⁷. Adibiderik garbiena agian Jose Mari Lopetegi *Txiplau* irundar errepublikano eta bertsolariarena izan daiteke. Nahiz eta gorde diren bertso gehienak 1923 ostekoak izan, *Txiplau*ren federalismoa eta euskaltzaletasuna Berrezarkuntza garaian ere agerian utzi eta politikagintzarekin konprometitutako bertsolaria izan zela ondorioztatu du Joxan Elosegik (2004). *Txiplau*k Errepublika hitzaren ordeaz *Erkala* erabili ohi zuela jaso du Elosegik (45. or.), adibidez:

Erkala eta Euzkadi'n alde
nere izate guztian,
beregatikan alde egin da
arkitutzen naiz Prantzian;
Estapel billa etorri giñan
sort-leku onak galtzian,
gaur emen nago Euskal-Ludian
kaskoi-mugaren ertzian,
Arraute izena, Bide-Berria
deitutzen zaion etxian.

Gogoratu nahi da gainera, Gipuzkoako errepublikanoek sarri erabili zutela *Bilintx* bertsolari eta errepublikano ohiaren irudia federalismoa, foruzaleatasuna eta euskaltzaletasuna goraiatzeko, eta Pio Bizcarrondo, Bilintxen semea, Donostiako federalismoaren gidarietako bat izan zela Berrezarkuntzan zehar. Bertsolaritzaren eta errepublikanismoaren arteko harreman estua antzeman daiteke baita Aizpururen artikuluan (2000: 66-67). Aizpuruk Victoriano Iraola eta batez ere Pedro Mari Otaño aipatzen ditu, azken horren ideologia zehaztu nahian. Otañok, foruak, *Euskal-erria* eta *Bastilla*-ko gertaerak defenditu ohi zituen:

(Errepublikak) eskatzen du egiteko
denok elkarri laguntza,
beren modura gobernatubaz
probintzi t'erri bakoitza,
ortik fuerora zer diferentzi
dago, aitona? Zer? Utsa.

7. VG, 1894-5-1, 1.

Prentsaren gaiarekin jarraituz, 1890eko hamarkadan zehar, euskal hiriburueta-ko prentsa-organoak komunikabide-enpresa bihurtzen joan ziren heinean, irakurle gehiagorengana iristen hasi ziren, eta horrek ideologia errepublikanoa zabaltzeko erraztasunak eskaini zizkien. Gaztelaniak jarraitu zuen izaten errepublikanoek publikoan erabiltzen zuten aurreneko hizkuntza, baina ez bakarra. Errepublikanoek gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jarraitu zuten, baina irakurle berrien gehiengoak, batez ere hiriburuetatik kanpora, oraindik euskara zerabilen bere egunerokotasunean. *La Voz*-en kasuan esaterako, 1890eko hamarkadan Donostiatik probintziako herrietara zabaltzen hasi zen eta berehala herrietako kronikak sistematikoki kaleratzen hasi ziren. Horrek, hizkuntza-politikan aldaketa handirik ekarri ez bazien ere, errepublikanoen artean euskarak zuen presentzia jabetzeko balio du. Errepublikano askok etxean eta kalean euskara erabiltzen zutelaren pentsatzen da, baita alderdien ospakizun askotan ere, herrietako kronikek adierazten duten moduan. Horren adibide izan daitezke, esaterako, 1895ean Eibarren otsailaren 11ko ospakizunetan —I. Errepublikaren aldarrikapen-eguna izan zen errepublikanoen artean egunik adierazgarriena— Antonio Iturrioz Eibarko alkateak kideei eskainitako hitzaldia⁸ edo 1899an Donostiako kasino federalaren bosgarren urteurrenaren ospakizunean federalen zuzendaritzako buru zen Gamboak irakurritako poemak⁹. Mendea amaitu aurretik, eta azken otsailaren 11ko ospakizunen harira, Emeterio Arrese errepublikanoaren bi bertso hauek publiko egin ziren Gipuzkoan, monarkia kritikatu eta mende berriarekin etorriko zen Errepublikaren esperantza edo egunsentia aurreikusiz¹⁰:

Ara nun dagon odol tartian
triste, mintsu ta bakarra
atso berekot kopet illuna
goiberaturik bizkarra;
ori da legez monarki-tarrak
darabilkiten izarra,
egun mocharen arratsaldia,
ori da illunabarra.

Begirazazu nola dagoan
urrutiko mugaldia
egal urdiñak zabal zabalik
eguzki printzaz betia;
ori da berriz argirotzen dan
mirabe alai gaztia,
albiste onez datorkiguna,
ori da, egun sentia.

Mendearen amaierarekin batera antzeman daiteke euskara iragan loriatsuak gogoratzeko tresna izatetik etorkizun ideala eraikitzeke gogoeten parte ere bazela, eta ez bakarrik bertso eta olerkietan erabili zutelako, baizik eta egunerokotasunean bizitza politikoa aurrera eramateko askotan aukeratu zutelako euskara.

8. VG, 1895-2-15, 1. Iturriozen herrikide zen Aquilino Amuategui sozialista besteak beste mitinak euskaraz botatzearen egin zen ezaguna (Narbaiza, 2002).

9. VG, 1899-11-6, 2.

10. VG, 1898-2-11, 1. Jatorrizko grafia errespetatu da.

Horren atzean egon daitezkeen arrazioen artean aipagarriena, agian, zera izan daiteke: 1890eko Sufragio Unibertsalaren legea kaleratu ostean errepublikanoek populuaren babesa lortu nahi bazuten, populuaren hizkuntza erabili beharra izan zuten, eta hiriburuetatik kanpora, non Bizkaiko salbuespenarekin oraindik estatuko gainontzeko probintzietatik etorritako emigranteen kopurua txikia zen, populuaren hizkuntzak euskara izaten jarraitzen zuen.

3. Euskara eztabaida politikoaren erdian

XIX. mendearen bigarren erdialdean, errepublikanoen artean federalak izan ziren euskara publikoki gehien erabili zutenak bai eta euskal kulturarekiko kezka gehien erakutsi zutenak ere. Eta mende-aldaketarekin, joera hori sakondu besterik ez zen egin. Esan behar da euskararen beraren erabilera arlo askotan agertu arren, bereziki euskal lurraldeen inguruko gaiekin erlazionatutako testuinguruan eman ohi ziotela errepublikanoek hizkuntzari indar berezia. 1900eko ekainean, Justo Maria Zavalak bere hitzekin eskaini zion «Euskal-Erriari» zortzikoa adibide¹¹. Eta euskara eta «Euskal-Erria» agertu ohi zirenetan, Iparraldeko euskaldunei erreferentziak egitea ere ohikoa izan zen errepublikanoentzat. Adibide bezala, urte hartan bertan, donostiarrek Elizanbururi eskainitako omenaldiaren testuinguruan, ospakizunaren ostean prentsan agertu zen «*Euskaria Francesa*» izenburua zeraman kronika baliagarria izan daiteke, honela baitzioen:

Hace pocos años que murió en su patria, en el encantador país vasco-francés, el primer poeta euskalduna (sic), (...) siguió viviendo en su país vasco. (...) poseen los vasco-franceses, en esa melodía que contiene el vascuence de los pueblos de Azcain¹².

Baina mende berriarekin batera, eta euskal lurraldeak ezagutzen ari ziren aldaketei lotuta —masa-gizartearen sorrera, industrializazioa, sozialismoaren eta euskal nazionalismoaren agerpena...—, historian ia lehendabizikoz, euskara politikagintza baldintzatzera iritsi zen elementua bihurtu zuten. Korrante politiko ezberdinen arteko eztabaidagaien artean nagusitzen hasi zen hizkuntzaren auzia, komunikatzeko tresna izatetik helburu politiko zehatz batzuk lortzeko aitzakia edo trabatza erabiltzen hasi baitziren alderdi guztiak. Herri bat egituratzeko orduan hizkuntzaren auzia ezinbestean jorratu beharra zegoela agerian geratu zen, eta horren aldekoak ez zirenek, bi bide hartu zituzten: hizkuntzaren eta nortasun nazionalaren arteko erlazioak ukatu, batak bestea baldintzatu ezin zezakeela defendatuz, edota ordura arte hain agerian ez zegoen beste nortasun nazionala indartu, kasu horretan, espainiarra¹³. Euskararen izaera bera, iragana eta etorkizuna zalantzan jarri zen aurrenekoz¹⁴.

11. VG, 1900-6-10, 1.

12. VG, 1900-11-14, 1.

13. Estatuko errepublikanoen artean espainiar nazionalismoaren indartzea batez ere 1890eko hamarkadaren amaieratik aurrera ezagutu zen fenomeno izan zen. Euskaldunei dagokienez, estatukoekin antzekotasun handiak eduki zituztela ikus daiteke. Errepublikanoen espainiar nazionalismoaren inguruan lan interesgarria adibidez: Ferran Archilés (2002).

14. Euskarak euskal nazionalismoaren eta batez ere Sabino Aranaren bilakaeran izan zuen garrantzia aztertu zuen besteak beste Kintanak (2007).

1901eko azaroan, zenbait euskal egunkari errepublikanok Unamunoren idatzia kaleratu zuten, zeinetan bilbotarrak euskara mantentzearen beharra eta erabilera kritikatu baitzituen. Hori Unamunok berak abuztuan Bilboko Lore-jokoetan esandakoek izan zuten oihartzunarekin lotu behar da. Unamunoren adierazpenek polemika handia piztu zuten, ez bakarrik euskal nazionalismoaren barnean, baita errepublikanoen artean ere. Errepublikano batzuk Unamunoren alde agertu baziren ere, gehienek kontrakotasuna adierazi zuten. Azaleratu ziren protestei dagokienez, zenbait errepublikano adierazgarrirenak azpimarra daitezke, adibidez Praxedes Diego Altuna donostiar errepublikano posibilista ezagunarenak. Altunaren kexuek, besteak beste, *La Voz* egunkaria azalpenak ematera behartu zuten. Egunkari errepublikanoak argudiatu zuen Unamunoren artikulua zientifikoki idatzita zegoelako kaleratu zuela, besterik gabe. *La Voz*-en azalpenak egunkariak eta haren inguruko errepublikanoek euskararen inguruan zuten jarrera aztertzeke balio du:

Nunca La Voz de Guipúzcoa estará al lado de los que defienden la doctrina de que el vascuence debe irse, queriendo con esto significar que haya que poner los medios necesarios para que el vascuence desaparezca¹⁵.

Hasierako polemikaren ostean, hurrengo hilabeteetan zehar, nolabait egunkari errepublikanoek euren orrialdeetan euskarari eta euskal kulturari arreta handiagoa eskaini ziotela antzeman daiteke, tarteka Iparragirre, Gernikako Arbola eta antzeko gaien inguruko kronikak aurkeztuz.

Baina Unamunorena ez zen izan euskararen aurka egunkari errepublikanoek kaleratu zuten artikulua bakarra, nahiz eta halakoetan jarrera horren kontra zeuden errepublikanoen kexuak entzun behar izan zituzten. 1912an, esaterako, *La Voz*-en S. Jaca izeneko batek Argentinatik *Gaztelu* federalaren artikulua baten aurka bidalitako idatzia kaleratu zen: «¿Cómo es posible (...) que se haya publicado sin protesta ese artículo en el riñón del País Vasco?». *Gazteluk* euskararen barnean existitzen zen euskalkien aniztasuna kritikatu zuen, Bermeoko batek Hondarribiko bat edo gipuzkoarrek lapurtarrak ulertzeko zailtasunak zituztela argudiatuz. *Gazteluren* ustetan, euskararen egoera hura, hizkuntza hiltzorian zegoelako sintoma bat besterik ez zen¹⁶:

Yo pienso que ese carácter del idioma no es por su sola expresión de la raza. Vascos hay que no saben hablar vascuence, y castellanos o hijos de castellanos que lo conocen a las mil maravillas. (...) la raza que es la que da la sangre, será signo de verdadera naturaleza, no el lenguaje, que al fin y al cabo, contra toda opinión siissmilchista (sic), es cualidad que se debe exclusivamente al hombre, creada y desarrollada por el hombre en colectividad. Para mí —esto lo creo firmemente— no es esencial la constancia de un mismo lenguaje para la existencia de un pueblo. El lenguaje varía, cambia y se modifica, muere y el pueblo vive, puede vivir.

XX. mendearen hasieran baina, berriro Kontzertu Ekonomikoen negoziaketen testuinguruan eta foruzaletasunaren gorakadari atxikia, euskararen erabilera eta euskarekiko sentsibilizazioa sakondu egin ziren errepublikanoen artean. Horren

15. VG, 1901-11-15, 1.

16. VG, 1912-7-9, 1. *Gazteluren* iritzia federalen artean ez zen ohikoena izan. Ziur asko ez zekien euskaraz, ez baitzen Euskal Herrian jai. 1912an *Remoras de la cultura vasca* liburuzka kaleratu zuen, euskaldunen hizkuntza, arraza, ohiturak eta legeak aztertuz. *Gazteluren* aburuz, lau puntu horiek izango lirateke Euskal Herriaren garapena zaildu zuten ezaugarriak.

adibide, Ganboak Tolosako gazteen kasinoaren inaugurazioan edota Antonio Iturrioz Eibarko alkateak Nicolas Salmeron errepublikano ezagunaren semearen aurrean botatako hitzaldiak. Iturrioz euskaraz mintzatu zen: «*para que se le comprendiera mejor*»¹⁷.

1906ko urrian Arrasateko Kasino Errepublikanoaren inaugurazioan, Uribesalgo, Samperio eta Ubagok emandako hitzaldiak horren beste adibide bat dira¹⁸. Inaugurazio-gauean gainera, Abarrategi poetak karlismoaren aurkako zenbait poema eskaini zituen, bai eta bandera hiru-kolorea goraiatu ere. Tartean honako hau entzun ahal izan zitzaien, aita liberal batek bere semeari karlistengandik urruntzeko eskatuz¹⁹:

¿Zu zergatikan zabiltz
Ori defenditzen?
¿zu zergatikan general Faltzoak serbitzen?
¿Ez aldezu zuk gauza
Ori entenditzen?
Nere seme maitia
¿zer dezu pentsatzen?
Bada azken azkena
Nik dizut esaten
Lotza bear dezula
Oyei beguiratzen
Eta oyelakorik
Bazaitzu etortzen
Azi azkar makilaz
Bizcarrak berotzen.

Kontzertu Ekonomikoaren negoziaketa hurbiltzen eta Gipuzkoan Foru Liga indartzen joan zen heinean, egunkariak ere berriro euskararen erabileran erreparatu zuten, eta, ondorioz, erreferentzia gehiago aurkitu ahal izan dira. Iturrien beste irakurketa bat izan liteke pentsatzea errepublikanoak bat-batean euskara gehiago erabiltzen hasi zirela, baina, gure ustetan, zentzu gehiago luke ondorioztatzeak egunkariak arreta handiagoa eskaini ziotela euskarari gizartea oraindik orobat euskalduna zelako²⁰.

Foruzaletasunak eta Hegoaldeko lau probintzien historia bateratuari egindako erreferentziak, XIX. mendearen amaieratik zetorren eta aurrez aipatu den joerari jarraikiz, errepublikanoen eta euskararen arteko harremana estutu zuten. Berrezarkuntza osoan zehar euskara gehien aipatu zuten tartea XX. mendearen lehendabiziko hamarkada izan zela esan daiteke, hain zuzen ere euskal diputatuek Kontzertu Ekonomikoa sinatu behar zuten garaia eta, beraz, foruzaletasuna gorengo mailan zegoen momentua, batez ere Gipuzkoan. Egon daitezkeen

17. VG, 1904-9-6, 1.

18. VG, 1906-10-17, 2.

19. VG, 1906-10-22, 2. Grafia errespetatu da.

20. Baieztapekin bat dator besteak beste Narbaiza (2010: 7-8). Capistouk (1877: 70) ere XIX. mendearen bigarren erdialdean antzeko zerbait zioen Gipuzkoan egindako bidaiaren ostean: «*Le Vascuence ou Euskara est la langue que l'en parle usuellement en Guipúzcoa, bien que le castillan soit adopté dans les actes publics et dans la haute société, sans doute pour faciliter l'entendement des étrangers*».

adibide guztien artean bat aukeratzekotan, *La Voz*-ek kaleratu zuen Foru Ligaren berri ematen zuen olerki kronikatu itxurako albiste hau, II. Errepublika arte euskaraz kaleratu zuen bakarra, zeinetan gipuzkoar guztien batasunaren alde egiten zen, ideologiak alde batera utziz²¹:

Provintziko erri geyenetatik bialdu diskigute ayetako bakoitzian arkitzen diren gizonen firmak edo izenak. Bañon erri batzubek oraindikan agertu ez dira. Ayek ere ez ote dira esnatuko? Erdi esnatuban tiraliak ateriaz egoteko beta juan zan. Ernai ta prest izateko garaya irichi zaigu zertan zaute. Gobernuari beinguan ayazi gabe «danak bat gerala?». Ontara erri bakoitzian erriyan diran gizon guztiyen firmak edo izenak bildu bear dira. Parroko jaun edo Erretore ta Alkate jaunak buru dirala danak danok firmatu edo bakoitzak bere izena jarri dezala, bat bakarrak ere uts egin gabe. Gauz ontarako laja beltza edo zuriya izatiari. Utzi alde batera erriko alkateren arteko sesiyo t'istillubak aztu gorrotubak, ta orde z gogoan eduki, oraiñ, oraiñ bezela, premi t'estuasun ontan, Euskaldun utsek gerala, Gobiernuak ala billatuko gaitubela, eta oni ayazi ere bai, Madrida «comisionatubak» bezela juan diran Diputatubak, gu danen orde z, ta gu danen izenian uan dirala, «derechoz» guria dana eskatzera, ta guk danok bear deguna ekartzea. Utsi arudik gabe, Gobiernuak nai dabena esan dezan, ta bitartean guk emendik lenbailen bialdu ditzagun, iru provintzi abetako Euskaldun on guztiyen izenak edo firmak Gobiernuak ikusi dezaten provintziyak Irurak bat dirala, ta danak bat, Euskalduna. Gure antziñako lege toiturak bizi dezatela. ¡Vivan los Diputados! ¡Vivan los Fueros!

Ikusi daitekeenez, errepublikanoen artean euskararen erabilera eta Euskal Herriarekiko sentimendua eskutik joan ziren gehienetan, eta euskal nazionalismoaren agerpena arte, errepublikano gehienak euskararen erabileraren eta euskal probintziek elkarrekin zituzten harreman historikoen defendatzaileak izan ziren. Baina euskal nazionalismoak plaza publikoan indarra hartu zuenean, Gipuzkoan XX. mendearen bigarren hamarkadan bezala, nazionalistekiko aurkakotasunarekin batera, euskararekiko mespretxua ere handitzen joan zen errepublikanoen artean²².

4. Euskal nazionalismoaren indartzea eta Berrezarkuntzaren krisia

Euskal nazionalismoaren indartzeak, bere garaian errepublikanismoaren agerpenarekin gertatu zen antzera, orduko taula politikoa aztoratu zuen eta zenbait korrante politikok euren oinarri ideologikoak birplanteatu behar izan zituzten, tartean errepublikanoek. Ordura arteko euskal iragan loriatsuari lotutako foruzaletasuna ez zen nahikoa jada euskaltzaletasuna justifikatzeko, eta euskal nazionalismoa Bilbotik eta Bizkaitik gainerako probintzietara zabaltzen joan zen heinean, harekiko eta euskaltasunarekin lotutako ia edozerekiko aurkakotasuna ere zabaltzen joan zen. Berrezarkuntzak aurrera egin ahala, joera hori sakondu egin zen eta 1923an, Primo de Riveraren diktadurarekin, euskararen inguruko lege eta gogoetak plaza publikotik desagertu ziren.

Esan bezala errepublikanoek, euskal nazionalismoaren aurrean diskurtso zaharberritu indartu behar izan zuten, hizkuntzak nortasun nazionalarekin izan zitzakeen

21. VG, 1906-11-12, 1. Grafia errespetatu da.

22. Beste askoren artean Josu Chuecak (2000: 223) kontatzen duenez, euskal nazionalismoaren gorakada eta euskararen erabileraren beherakada batera etorri ziren.

harremanak ukatuz. Errepublikanoak aurrenekoz, euren euskalduntasuna ere zalantzan jartzen ari zirela konturatu ziren. Arrazoiaren artean, indar abertzaleek gainontzeko indar politikoei hainbat alditan benetako «*vascongado*» ez izatea leporatu izana dago besteak beste. Eraso horien aurrean, errepublikanismoak erreakzionatu egin zuen.

Antonio Iturrioz Eibarko alkate errepublikanoak *La Voz*-en idatzitako «Mi Vascongadismo» artikulua horren adibide garbia da. Bertan, Iturriozek errepublikano izatea eta euskalduna izatea kontrajarriak ez zirela defendatu beharrean aurkitu zen, eta eman zituen arrazoiaren artean azaldu zuen bere arbasoak euskaldunak zirela, bere emazte eta seme-alaben moduan, eta txikitatik amak euskaraz irakatsi —besterik ez zekielako— eta berak euskaraz egin zuela. Mitin politiko gehienetan eta bizitzako gainontzeko momentuetan ere euskara erabili ohi zuela gaineratu zuen Iturriozek. Hori gutxi balitz, azken karlistaldian borrokan aritzeagatik atzerrira ihes egin behar izan zuela gogoratuz, euskaldun oso ez izateko arrazoirik ez zuela argudiatu zuen Iturriozek. Nolabait, bere euskalduntasuna tartean euskararen erabilerarekin justifikatu nahi izan zuen, euskarak bere bizitzan izan zuen garrantzi handia azaleratuz, nahiz eta bere ideia politikoetan independentziarako tarterik egon ez. Hala ere, independentziarik ez baina euskal probintzien autonomiaren aldekoa izan zen Iturrioz, gobernuarengandik distantziak markatuz:

Nunca será grande la patria común de los españoles, si los pueblos y las regiones que la integran no son grandes a su vez por sus virtudes, por su libertad, por sus hábitos de trabajo, su capacidad administrativa²³.

Euskal nazionalismoaren zabaltzeak sortu zuen hasierako ideologia-mailako erreakzioaren ostean, beste bat etorri zen berehala, batez ere nazionalistok erakunde publikoetan sartzen hasi zirenean, besteak beste, euskararekin lotutako lege ezberdinak adostu eta praktikan jarri zituztelako. Klerikalismoarekin batera errepublikanoen eta euskal nazionalisten arteko liskarren erdigune bihurtu ziren euskararen inguruko legeak. 1910eko abenduan esaterako, Hernaniko Udalak, zinegotzia zen Felipe Miner errepublikanoaren gomendioei jarraikiz, udaleko postu bat betetzeko baldintzen artean ikasketaduna izateaz gain, merezimendu berbera zutenen artean aukeratu behar zen kasuetan, euskara jakiteak lehentasuna izango zuela erabaki zuen²⁴. Erabaki hark ez zuen zalaparta gehiegirik piztu errepublikanoen artean, berehala ikusiko den arrazoiagatik²⁵.

1916ko abenduan Gipuzkoako Diputazioko baso-ingeniaria izateko baldintzen artean euskararen ezinbesteko ezagutza jarri zen baldintzatzat eta horrek, oraingoan bai, besteak beste errepublikanoen haserrea ekarri zuen. Ia zutabe osoko

23. VG, 1906-3-6, 1.

24. VG, 1910-12-24, 2.

25. Antxon Narbaizak Eibarko Udalean hizkuntz eskakizunaren liburuan aipatzen duenez (2010: 57-58), 1900 eta 1936 bitartean, 106 lan-eskaintzetatik 88tan ez zen euskara-eskakizunik egin (% 83), baina hala ere, langile berrien gutxienez % 70 euskalduna zen. Kontuan hartu behar da, aipatu urteetan zehar errepublikanoak —eta sozialistak— izan zirela Eibarko Udalean indar nagusiak. Narbaizak 24. orrialdean dioenez, Donostia, Irun eta Eibarko udaletako lan publikoak betetzeko eskakizunen artean euskara eskatzea ez zen ohikoa izan, bai ordea gainontzeko herrietan. Hain zuzen ere, hiru herri/hiri horietan izan zuen errepublikanismoak ezarpen handiena Gipuzkoan (Belaustegi, 2013).

idatzian, *La Voz*-eko errepublikanoak, euskararekiko zuten maitasuna argi utzi ostean, «*Sentimos nosotros tanto cariño y tanta veneración como el que más por las cosas propias de esta tierra y de esta raza*», erabakiaren aurka agertu ziren:

Siguiendo por este último camino y llevando a exagerados extremos la imposición del vascuence, los vascófilos a ultranza pudieran llegar con su proteccionismo a cerrar las fronteras del pensamiento. Los habitantes de este país, sujetos a un régimen mono lingüístico, no estarían en condiciones de comunicarse con el mundo como lo hacen mediante el castellano.

Eta modu honetara amaitu zuten kritika²⁶:

Que en igualdad de condiciones se prefiera al concursante que habla vascuence está muy bien. Pero que quien no lo hable no pueda ser funcionario de la Provincia o del Municipio, es algo que se aparta del buen sentido y que nos predispone a captarnos antipatías que no hay porqué atraerlas.

Eta Hernanin eta Gipuzkoako Diputazioan bizitakoak gainontzeko hiri nagusietan ere ikusi ahal izan ziren berehala. Donostiako Udaleko gertaerak horren adibide. 1917ko azaroan egin ziren udal-hauteskundeak indar kontserbadoreek irabazi eta udalean gehiengo eskuratu zuten. Urte berriarekin batera hasi zuen udal berriak jarduna, eta lehendabiziko proposamena, Vicente Laffitte mauristak egindakoa, honako hau izan zen: gaztelaniaz ongi moldatzen ez ziren zinegotziei euskaraz hitz egiteko baimena ematea. Proposamenak, noski, protesta handiak sortu zituen eta, tartean, errepublikanoen mesfidantza azaleratu zen. Erabakia «*maurista*» eta «*bizkaitarra*» bezala deskribatu zuten. Errepublikanoek bi interes ikusi zituzten Laffitteren saiakeraren atzean. Batetik, udaleko idazkari berria izendatu beharra zegoen eta euskaraz hitz egiteko legea onartuz gero, idazkariak ere euskaraz jakin beharko zukeen, derrigorrean, aktak jasotzeko. Beste aldetik, Dato Gobernutik kanporatua izan zenez, Laffittek euskal nazionalisten laguntza bilatu nahi zuen politikagintzan jarraitzeko. Laffitteren proposamenaren gaineko eztabaida gehiagorik ez zen egon, baina errepublikanoek argi utzi nahi izan zuten euren jarrera²⁷:

Tenemos la convicción absoluta de que los bizkaitarras (sic) han llegado al Municipio en son de guerra (...). [Estamos] dispuestos a comentar sinceramente sus actos, pues jamás consentiremos que aquellos cuyas ideas solo son compartidas por una parte reducidísima de este pueblo, traten de imponerse manejando como armas la desconsideración y la insolencia, y quieren causar daños a San Sebastián, la «ciudad reprobada», según ellos objeto ardiente de nuestros amores, como lo es Guipúzcoa y lo es Vasconia entera. Porque a pesar de poner por encima de todo el amor a España, somos tan ardorosos vascongados como el bizkaitarra (sic) más irreductible.

Antzeko jarrera erakutsi zuten gipuzkoar errepublikano kontserbadoreek euskal nazionalistak Bizkaiko Diputazioan euskararen aldeko erabakiak hartzen hasi zirenean. Euskararen defendatzaile sutsu bezala agertu ziren errepublikanoak baina «separatistek» Espainiarekiko banaketa sakontzeko euskara erabiltzea onartuko ez zutela adierazi zuten:

26. VG, 1916-12-21, 1.

27. VG, 1918-1-4, 1.

Un día, y a pretexto —más o menos fundado— de que muchos habitantes del País no conocen el idioma castellano, en vez de fomentar su divulgación, se hacía que los documentos oficiales emanados de las diputaciones se escribiesen en castellano y en vascuence. (...) Y llego un día en que, con una osadía verdaderamente inconcebible y que echa por tierra todas esas ridículas lamentaciones de los «bizkaitarras» cuando dicen que «Vasconia es una nación oprimida por España»²⁸.

Euskal lurraldeentzat euskal nazionalisten jarrera hura erabat kaltegarria zela iruditzen zitzairen errepublikanoei, besteak beste, eta gaztelaniaz ez zekitenei eragingo zien kalteaz gain, estatuko gainontzeko probintzien aurkakotasuna eragingo zuelako. Errepublikanismoaren sektore kontserbadoreak azaleratu zituen ideia horiek gainontzeko errepublikanoen artean aldeko eta aurkako adierazpenak ekarri zituzten. Aurkakotasunei dagokienez, B.M. ezizenez sinatu zuen errepublikano batek, artikulua «*desdichado*» bezala deskribatu ostean, errepublikano kontserbadoreen jarrerak euskarari kalte egiten ziola adierazi zuen, errepublikanoek ere txikitatik euskaraz hitz egiten zutelako eta «bihotzean» zeramatelako. Aipagarria agian, egun berberean *La Voz* egunkariak Francisco Gascue federal ezagunak idatzitako eskutitz bat erabili izana, euskal nazionalismoa euskara *separatismoa* justifikatzeko erabiltzen ari zela kritikatu²⁹:

¿Que el vascuence debe cultivarse? Perfectamente. Yo por mi parte, laboro en ese sentido; mi esposa, a pesar de no ser vasca, he conseguido que lo comprenda, y confió en su dominio total de la lengua vasca. Después, mis hijos habían de saberlo y procuraré no lo olviden. Entiendo yo que esto es mirar desinteresadamente por la perduración del vascuence, y no ciertas medidas preñadas de tendencias políticas malsanas.

Handik urte batzuetara, 1923an, antzeko eztabaida bat piztu zen Donostiako Udalean. Dirudenez, korrante politiko guztiek euskararekiko eta euskal kulturarekiko babesa handitu egin zuten, batez ere Gobernuaren delegatuek euskaraz ez zekitenez mitin eta ekintza publikoak euskaraz ospatzea debekatu zutelako. Baina Gobernuaren erabakiak euskal nazionalistak mugiarazi zituen bakarrik, eta euskararen aldeko erabakiak hartzera bultzatu zituztela dirudi. Donostiako Udalak, esaterako, kontratatzen ziren langile berriak euskara ikastera behartzea adostu zuen. Euskal nazionalisten erabakien aurka Fernando Sasiain gazte errepublikanoa eta Castor Torre sozialista agertu ziren bakarrik³⁰:

Afirman que «en realidad no es preciso conocer el vascuence, sobre todo en esta ciudad cuyo empleo es insignificante, aún en la vida familiar y muchísimo menos socialmente... Es, además, inconstitucional, ya que todo español puede aspirar a los empleos y cargos públicos».

Berrezarkuntzaren azken urteotan, beraz, euskararen inguruan hiru korrante nagusi azaleratu zirela esan daiteke. Alde batetik, errepublikanismo kontserbadorearekin identifikatu zen sektorea, euskararen alde bai baina horren gaineko erabaki politikoak hartzearen aurka agertu zirenak. Multzo horren barnean sartuko

28. VG, 1921-4-15, 1.

29. VG, 1921-4-17, 6. Aipagarria diogu, Gascue 1920an hil baitzen. Eskutitza hil aurretik idatzi zuela pentsatu nahi da.

30. Luengo (1991: 155).

genituzke zenbait monarkiko ere, tartean Jose Orueta bera, bere lanetan euskarekiko hurbiltasuna erakutsi baitzuen (Orueta, 1922).

Errepublikanoen sektore murrizago batek, *Gaztelu* federalak esaterako, Unamunoren teoriei jarraikiz, euskara desagertzearen «aldeko» jarrera erakutsi zuen. Euskarak herriari nazioartean erlazionatzeko oztopoak jartzen zizkiola uste zuten horiek, eta gaztelania erabiltzen hasteko beharra defendatu zuten. Hala eginez gero, batetik, elizgizonen eragina gutxituko zela aurreikusten zuten, eta, bestetik, Euskal Herria espainiar herrien buruan jarriko zela. Joera hori errepublikano horiek euskal nazionalismoaren aurkako jarrera erakusteko modua izan zen batez ere, eta Berrezarkuntzak aurrera egin ahala gero eta jarraitzaile gehiago izan zituen³¹.

Azkenik, hirugarren sektore batek euskal errepublikanismoak zituen oinarri federalen ondorioz, euskara eta euskal kultura eta tradizioarekiko gertutasun handiagoa erakutsi zuen. Partidu Federaleko kide gehienak sartu beharko lirateke multzo horretan, nahiz eta, ikusi denez, salbuespenak egon. Berrezarkuntzaren azken urteetan, gainera, talde horrek gainontzeko errepublikanoengan eragitea ere lortu zuen hein batean, Berrezarkuntzaren hasieran bezala, foruzalatasunarekin lotuta euskararen ideia erromantikoa azaleratu baitzen. Euskara Euskal Herriaren tradizio eta usadioak eta probintzien iragan loriatsua goraiatzeko tresna bihurtu zuten berriro, elementu politikoari hainbeste erreparatu gabe:

Al cabo de los tiempos, cuando en otras tierras desaparecieron aedas, trovadores y juglares y el romancero castellano perdió su aroma popular para contra hacerse con burdas imitaciones literatescas (sic), los vascos perseveran en sus tradiciones poéticas, nacidas en la prístina fuente plebeya. Los «versolaris» conservan en sus estrofas la rudeza y la ingenuidad primitivas. Son, como estos «Pranshesa», Iparragirre y Ezquerria herederos de Gonzalo de Berceo, el gran bardo. Y, como él, no son letrados ni ambiciosos. Se contentan con obtener, por premio de sus trovas, el clásico «vaso de bon vino», que Berceo pedía³².

Ondorioak

Esan daiteke beraz, errepublikanoen eta euskararen arteko harremana II. Errepublikan aurretik gazi-gozoa izan zela. Oro har, gehienek ikusi zuten euskara zaindu eta mantentzeko beharra, euskara euren historiaren parte zela kontsideratzeaz gain, historia hori gogoratzeko tresnatzat erabili baitzuten. Hein handi batean horregatik, euskararen erabilera ahozkotasunera mugatu zuten. Idazteko hizkuntza ez izan arren, ospakizunetan euskal abestiak abestea —Gernikako Arbola ereserkia ia Marsellesa adina abestu zuten— edo mitinetan euskara sarri

31. Jarrera hori *separatismoaren* aurkako jarrera zela adierazten duen beste adibide bat, *Gazteluk* berak 1893an idatzi zuen “La salud de Euskeria”. Bertan, Hegoaldeko lau probintzien egoera aztertu eta foru-sistema defendatu zuen, separatismoari aurka egin eta espainiar federazioaren oinarri izan zedin. Horretarako, foruak eta probintzion autonomia beharrezkoak zirela aipatu zuen jada urte hartan; Liburuaren hasieran, Pi i Margallengandik jaso zuen eskutitz bat dator, tartean honako hau zioena: «Sin la federación, sin que sean autónomas las demás regiones de España, no es de esperar que esas provincias recobren sus pérdidas libertades ni puedan gobernarse por sí mismas en todo lo que a su vida interior corresponde. (...) Todas [las provincias vascas], absolutamente todas podrán vivir en la federación libres e independientes».

32. VG, 1923-2-10, 3.

erabili zuten errepublikanoek. Azken horrek, era berean, errepublikanoen gehiengoa euskaraz komunikatzen zela adierazten du. Euskararen presentzia hiriburuetatik kanpora askoz nabarmenagoa zen, eta probintzietako herrietan euskara gaztelania adina erabiltzen zutela ondorioztatu behar da³³.

Oro har, federalak izan ziren euskararekiko sentsibilizazio handiena erakutsi zutenak, euskal Estatu federal baten eraikuntza justifikatzeko orduan, foruzale-tasunarekin lotuta, euskal tradizio, kultura eta usadioak elementu garrantzitsuak izan baitziren, eta, ondorioz, baita euskara ere. Gainera, euskal probintzietako errepublikanismoaren oinarri ideologikoetan federalismoaren eragina ia erabatekoa izan zela onartuz gero, kutsu federal horrek errepublikano gehientsuenei euskararekiko nolabaiteko sentiberatasuna sortu ziela ondoriozta daiteke.

Federalismoaren eta euskararekiko sentsibilizazio horren arteko erlazioa ez da kasualitate hutsa edo Euskal Herrira bakarrik mugatu zen gertaera. Estatu moder-no bateko komunitate ezberdinen hizkuntza-beharrak asetzeko konponbidetzat teoria federalak erabiltzea historian hamaika aldiz jorratu den aukera da. Kanadan, esaterako, federalismoaren aldeko apustua eta AEBko Konstituzioa erreferentziazat hartzea, batez ere Quebec-eko frantses-hiztunen eskaerei erantzunez eta Estatu bakar baten pean biltzeko soluziorik praktikoena zela ondorioztatu zuten frantziar eta ingeles-komunitateek: «*In 1867 when Canadian political leaders sought to frame a new political system. The need to protect the Francophone minority led to the choice of a federal system rather than a unitary state. As the Supreme Court recently noted "the social and demographic reality of Quebec (...) was one of the essential reasons for establishing a federal structure for the Canadian union in 1867"*».³⁴

Beraz, nahiz eta euskal errepublikanoen artean euskararen erabilera gutxitzen joan, batez ere euskal nazionalismoarekiko aurkakotasunaren ondorioz, eta baita poliki-poliki euskara tresna politiko bihurtu izanaren ondorioz ere, etxeko bizimodutik haratago ere sarri erabili zuten hizkuntza izan zen. Industrializazioak eta migrazioek euskararen erabilera zaildu eta mugatu zuten aldi berean, eta euskararekiko jarrera politiko ezberdinak azaleratu ziren, baina II. Errepublika arte behinik behin, euskal probintzien iragan loriatsua gogoratzeko lehendabiziko komunikazio-bidea euskarak izaten jarraitu zuen, Gernikako Arbolak edo II. Gerra Karlistaren inguruan abestu ziren bertso eta olerkiek adierazten dutenez.

33. 1897an adibidez, Donostiako Udalak Alde Zaharreko kale eta plazetako kartel guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idazteko araua onartu zuen, baina araua ez zen praktikan jarri, Sada (1997: 7).

34. Grammond (2010: 75). Erreferentzia egiten zaion idatzia, «Durham Txostena» izenez ezagutzen da. Nahiz eta txostenak oinarrian frantsesarekiko mespretxua erakutsi, historikoki estatu liberal modernoak antolatzeke orduan hizkuntzen arazoari korrante errepublikano federalak eman dion soluzioa ulertzeko baliagarria da.

Bibliografia

- Agirreazkuenaga, J. (2004): "Euskara, egitasmo politiko bihurtu: Sabino Aranaren asmoak denboraren gurpilean", in EE, *Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*, Sabino Arana Kultur Elkargoa-Euskaltzaindia, Bilbo, 15-33.
- Aizpuru, M. (2011): *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira*, Azpeitiko Udala, Azpeitia.
- , (2000): "Vascófilos y bertsolaris, conformadores del nacionalismo vasco en el último tercio del siglo XIX", *Gerónimo de Uztariz*, **16**, 66-67.
- Alonso Olea, E. (1995): *El concierto económico (1878-1937). Orígenes y formación de un derecho histórico*, IVAP, Oñati.
- Altuna, P. (1996): *Jose Inazio Aranaren bizitza (1838-1936)*, Euskaltzaindia, Azkoitia.
- Archilés, F. (2002): "Una nacionalización no tan débil: patriotismo local y republicanismo en Castellón (1891-1910)", *Ayer*, **48**, 283-312.
- Belaustegi, U. (2013): *Errepublikanismoa Gipuzkoan, 1868-1923: bilakaera, sustraiak, gizarteratzea eta prosopografía*, Tesia, Leioa.
- , (2014): "Un diario republicano en un medio hostil: *La Voz de Guipúzcoa*, 1885-1923", *Historia Contemporánea*, **49**, 645-674.
- Capistou, M. L. (1877): *Guide du voyageur dans la province basque du Guipuzcoa (Espagne)*, Imprimerie A. Lamaignère, Baiona.
- Chueca Intxusta, J. (2000): "El nacionalismo vasco y el euskera (1893-1936)", in R. Jimeno Aranguren (ed.), *El euskera en tiempo de los euskaros*, Nafarroako Gobernua, Iruña, 219-237.
- Elosegi, J. (2004): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria (Irun 1875-Arrueta 1942)*, Paper Hotsak, Zarautz.
- Grammond, S.: "Linguistic Identity and the law: Acces to English-Language schools in Quebec", in J. M. Castilla Andreu eta S. Grammond (koord.), *Diversidad, derechos fundamentales y federalismo. Un diálogo entre Canadá y España*, Atelier Canadiana, Bartzelona, 73-90.
- Itzaina, X. (1999): "Erlijioa eta herri-nortasuna Euskal Herrian eta Quebec-en", *Uztaro*, **31**, 129-150.
- Kintana Goiriena, Jurgi (2007): "Ba al zekien Sabino Aranak euskaraz mintzatzen?", *Uztaro*, **63**, 21-29.
- Luengo Teixidor, F. (1991): *La crisis de la Restauración. Partidos, elecciones y conflictividad social en Guipúzcoa, 1917-1923*, EHU, Bilbo.
- Martinez Fuentes, G. (2012): *El republicanismo vitoriano del último cuarto del siglo XIX*, Gasteiz, Tesia.
- Martinez Lopez, F. (2007): "Las enseñanzas del exilio. Nicolás Salmerón en París (1876-1885)", in Martínez López, F. (ed.), *Nicolás Salmerón y el republicanismo parlamentario*, Biblioteca Nueva, Madril.
- Nagore Ferrer, M. (2007): "Del Gernikako Arbola a La Marsellesa de la Paz. Música, política e ideología en Vizcaya", *RIEV*, **52**, 1, 107-136.
- Narbaiza Azkue, A. (2002): *Akilino Amuategi (1877-1919)*, Ego Ibarra, Eibar.
- , (2010): *Hizkuntz eskakizuna Eibarko Hirian, 1900-1936*, Badihardugu, Eibar.
- Ortiz de Orruño, J. M. (1991): "Ricardo Becerro de Bengoa: su trayectoria intelectual", *Kultura, Ciencia, Historia, Pensamiento*, **3**, 43-57.
- Orueta, J. (1922): *El Concierto Económico. Nuestra situación ante la futura renovación de cupos del año 1926 y modo de prepararnos para ella*, Imprenta de Martin, Mena y C^a, Donostia.
- Penche Gonzalez, J. (2009): "La República foral: los republicanos ante la cuestión vasca", *Memoria y Civilización*, **12**, 193-215.
- , (2010): *Republicanos en Bilbao (1868-1936)*, EHU, Bilbo.

- Sada, J. M. eta Sada, A. (1997): *San Sebastián. La historia de la Ciudad a través de sus barrios, calles, plazas, montes y caminos*, Txertoa, Donostia.
- Salaverria Ipenza, M. (1893): *La salud del Euskeria. Dialogos*, Imprenta de J. Baroja e Hijo, Donostia.
- , (1912): *Rémoras de la cultura vasca*, Tipografía de La Voz de Guipúzcoa, Donostia.
- , (1915): *Los vascos y sus fueros*, Imprenta de Martin, Mena y C^a, Donostia.
- Urmeneta, B. (1996): *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones (1876-1919)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Urquijo Goitia, M. (1994): *Liberal y carlistas. Revolución y fueros vascos en el prelude de la última guerra carlista*, EHU, Bilbo.
- Zalbide, M. (2003): "Hendai-Hondarribietako biltzarrak: XX.mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu", *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena. Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak, 2001*, 1-134.
- Zavala, A. (1997): *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, Auspoa Liburutegia, Oiartzun.

